



Ohitura zaharra berritu zuten Andoaingo eta Urnietako herrigunean eta landa eremuan


2017ko otsailaren 10a, 511 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

SANTA AGEDA BEZPERAKO KANTU ERRONDA

Kualifikazio handiko gazte enplegua sustatzeko egitasmoa

Beterri-Buruntzako Udalek laneratzeko egitasmo berriaren parte hartuko dute, Jaurlaritzarekin eta Europako Gizarte Funtzarekin batera.

Diagnostikoa gordina da: Langabezia tasa %14 ingurukoa bada, horietatik laurden bat 20-35 urteko gazteak dira. Eta gazte horietatik erdia baino gehiago gazte kualifikatua da. Bestela esanda, unibertsitateko edo LHko goi-mailako zikloko tituludunak dira. Egoera aldarazteko, 2016-2021 urteetarako, Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko garapen agentziek Hazilan laneratzeko proiektua jarri dute abian. Beterriko garapen agentziatik egitasmo berritzailea horrela azaldu dute: "Gazte kualifikatuaren kolektiboa prestakuntza-maila handikoa bada ere, zailtasun handiak ditu lanmerkatuan sartzeko bere lanbide-profilari lotutako esperientziarik ez duelako batetik, eta enpresek eskatutako zeharkako konpetentzia eta gaitasunen ja-



Elektronika mailako egitasmoa Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxean.

be ez delako bestetik. Hazilaren helburu nagusia laneratzeko da, laguntza pertsonalizatuaren bitartez. Hazilan proiektuari esker, garapen-agentziek etorkizuneko proiektuak dituzten enpresak zein diren jakingo dute, eta enplegu bat lortzeko behar dituzten baliabideak jarriko dituzte gazteen eskura, haien gaitasunak indartuz eta kudeatzen lagunduz".

Hazilanez metodologia berritzailea proposatzen du, ibilbide pertsonalizatu batean oinarritua, eta parte-hartzaileen ezagutza pertsonaletara eta enpresek eskatutako proiektu profesionaletara egokitua.

Proiektuak honako arlo hauekin lotuta egongo dira: nazioarteko merkataritza, berrikuntza eta dibertsifikazioa, teknologia berriak, eta abar. Hautatutako

pertsonek 200 orduko erreformatu-prestakuntza jasoko dute proiektuan sartu aurretik.

IZEN-EMATEA ANDOAINEN

Programan parte hartu nahi duten enpresa edo gazte guztiak izena emateko aukera dute martxoaren 15era arte:

- 943 304 221 (Urigain etxea).
- hazilan@andoain.eus

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Urkullu Urnietan izan zen igandean



Lehendakariak ENBA sindikatuaren 25. urteurrenko batzarrari amaiera eman zion, sektorearekiko konpromisoa berretsi zuelarik. Markel Olano Ahaldu Nagusia ere Urnietara bertaratu zen.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Andoaingo Piano Jaialdia

Ulangak, Castrok eta Aiertzak sustatutako Deidar elkarteak dozenaka bolondresen laguntzari esker piano jaialdi arrakastatsua antolatu zuten. Asteburuak aste osoko ekitaldiei amaiera eman zion.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

Haur txikien guraso euskaldunei zuzendutako hitzaldia Basteron

"Nola lagundu seme-alabei lagunartean euskara erabil dezaten?" izenburupean hitzaldia, otsailaren 16an.

Seme-alaben hizkuntza ohituretan eragin nahian, proposamen eta aholku ezberdinak eskainiko dizkie EBETE elkarte-ko Iñaki Eizmendi gizarte hezitzaileak Basterora hurbiltzen diren gurasoei. Hitzordua otsailaren 16an izango da, ostegunarekin, Basteron.



Euskararen erabilera sustatzeko EBETE elkarteko kide da Iñaki Eizmendi.

Hizlariak hiru bide garatzea proposatuko du hitzaldian:

- **Jokabideak:** hizkuntza-ohitura asko imitazioz ikasten dira. Seme-alaben hizkuntza-ohiturak axola zaizkien gurasoei beraienak zaintzea komeni zaie.
- **Hizkuntzarekin harremana:** hizkuntza-ohituretan eragin zuzena dute hizkuntzekin ditugun bizipenek, hizkuntzaren kiko pertzepzioek, eta abar. Horri begira hainbat gomendio egingo dira hitzaldian.
- **Aberastasuna:** etxetik euskara aberatsa eskaintzea abiapun-

tu garrantzitsua da seme-alaben hizkuntza ohituretan eragitera begira. Saioan zehar aholkuak emango ditu.

Iñaki Eizmendi Lasarte-Orian Ttakun euskara elkarteak sortu zenean dinamizatzaile lanetan eta aisialdiko arloan aritu zen: "Beti helburu moduan jartzen genuen euskararen erabilera sustatu nahi genuela, baina gero ez genekien nola egin. Zentzu horretan, baliabideak, tresnak eta ideiak emateko sortu nuen Ebete".

Otsailak 16, osteguna.
Bastero. 18:00.

HITZALDIA LEHEN ETA BIGARRIN HEZKUNTZAKO IKASLEEN FAMILIA EUSKALDUNENTZAT

Nola lagundu seme-alabei lagunartean euskara erabil dezaten?

otsailak 16, osteguna
18:00

Bastero Kulturgunea

ITZIAR LARZABAL izango da hizlaria.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Elgoibartik dator notizia

Gure herri honen oroimena badao, poliki-poliki bederen, bidea egiten. Zailtasunak asko eta era askotarikoak dira. Badago oroimena borroka edota ideologia mailan jartzen duenik; beste batzuk 1977ko urtea jartzen dute puntu eta bukaera gisa, Frankismoaren kolpe militarra, 40 urteko Diktadura eta 1977tik aurrera ere emandako errepresioa ezkatatu eta isilarazteko. Baina, asko gara uste dugunok herri honen historia, gaurkoa alegia, ezin dela eraiki iragana ahaztuta. Eta, berandu, baina herri honetan hasi zen oroimena errekuiperatzen, eta duela zenbait urte espero ez zena, poliki-poliki badao herria ahantzuraren estali hori kendu eta hainbat denboran hor ezkutuan egon den oroimen hori azaleratzen eta beharrezko duen duintasuna lortzen.

Zailtasunak era askotakoak direla esan dut eta nabarmenatariko bat justiziari dagokio. Estatuko gobernuak ez du errazten inondik ere, nahiz eta presioak handik eta hemendik ugari izan egia aurkitu, justizia egin, errekonozimendua landu eta erreparatzeko. Hor dugu Argentinako kereila, zeinera jo behar izan zen hemengo justiziak ez zuelako jaramonik egiten. Argentinara kereilari askok jo dugu; eta, hasiera hartatik Servini epailea espainiar estatua etorri izan da pertsonalki testigantzak zuzenean jasotzera; azken hilabete haue-tan etortzeko asmoa bai, baina Gobernuak uko egin dio. Areago, Gobernuak, Justizia Ministeritzaren bitartez, galerazi egin die kereilatu nahi izan dutenei testigantzak hemengo epaitegietan jasotzea. Halere, eman dira zenbait kasu non epaileek, goikoen aginduari jaramonik egin gabe, testigantza horiek jaso dituzten. Zenbait Udal ere kereilari sustengua emateaz gain, kereilatu egin dira euren udalerriko krimenak salatze-ko. Beste zenbait, dirudienez, bide hori urratzeko zerbitzu juridikoen informarean zain daude. Espero dezagun, azkar baina berandu auzia argitu dadin oraindik bide hori hartu ez duten udalerriri eta Aldundiek bide hori har dezaten. Zailtasunen harira horra egun hauetako berria: Gasteizen 1976ko martxoan burututako sarraskia Gasteizko Udalak eta Diputazioak jarritako salaketa epaileak bertan behera utzi du Kode penalak "Lesatua humanidad" deituriko delituak ez dituelako jasotzen.

Dena den, zutabearen izenburura itzuliz, azaltzen dira notizia onak ere. Oraingoa Elgoibartik dator. Oroimen institutuak eta Udalak Kolunbarioa jarri dute herriko hilerriaren ondoan; eta

Elgoibarko ekitaldiari ospea eta ohorea ematen dion esaldia Pako Etxeberriak berak adierazitako da: "Ez dira hezurrak, pertsonak dira"

bertan hainbat gorpuzkin gorde dituzte. "Duintasunaren kolunbarioa" izenez bataiatu dute. Ezin izen ederragorik asmatu! Ez dut bertatik ezagutzeko aukerarik izan, baina komunikabideetan ikusi ahal genuenez, txukuna eta dotorea zirudien.

Lan hauetan dabilena Pako Etxeberria Aranzadiko presidentea ekitaldian izan zen, eta berak esandakoaren arabera, 27 gorpuzkin horiekin inoiz aurkitu ez diren gorpuzkin ordezkatu nahi dituzte. Hainbat herritan aurkitutakoak dira. Eta, nire irudiko, ekitaldiari ospea eta ohorea ematen dion esaldia Pakok berak adierazitako da: "Ez dira hezurrak, pertsonak dira".

Elgoibartarentzat kolunbarioa barne poza eta bakearen isla izan da, noski, eta batik bat, identifikatzea lortu duten bien familientzat. Irudikatzen duzue, esaterako, Urnietan leku egoki bat horrelako kolunbario bat zeinean jaso gerra zibilean eta diktadura garaian eta ostean hildakoen izenak? Urnieta esan dut, bertakoa naizelako. Oroimen horrek, seguruenik, famili artekoei lehenik eta herritar guztiei eman diezaike duintasuna eta bakea.

Gauzak, nahi baino motelago doaz, dudarik ez. Baina Elgoibarko Udala gainerako Udalen eredu izatea espero dugu.

Kataluniari begira

Zutabea bukatzeaz jarraitu ditut Kataluniako agintarien aurkako epaia eta epaiaren ingurukoak. Izan ere, ez da normala horrelako epaiketa. Astelehenean, berriz, Donostian Boulevardean elkarretaratzea egin zen erabakitze eskubidea defendatuz eta Kataluniari laguntza eskainiz. Erabakitze eskubidea, eskubide demokratikoa dago jokoan.

Entzun dudanez, Hernani-Astigaragan martxoaren 19an egingo dutela galdeketa eta badirudi galdeketa parte hartzeari garrantzia berezia emango zaiola. Ongi deritzot jendeari galdetzea. Ez dakit Donostia inguruan egingen den, baina ez dut zalantzarik. Nik neuk bozkatu egingo nuke. Zorte on galdeketa egingo duten herri horiei eta erantzuna bakesua eta ugaria izan dadila!

Otsailaren 12an amaituko da proposamenak aurkezteko epea

Proposamenak egiteko azken egunak

Urnietako Udalak martxan jarritako parte hartze prozesuari buruzko informazioa emateko karpa jarri zuten aurreko asteburuan zehar, Urnietako herriguneko hainbat tokitan.

Prozesuaren garapenez arduratzen ari den Ibatuz enpresako kideak informazioa ematen aritu ziren. Larunbat arratsaldean, esaterako, eguraldi kaskarrarekin kiroldegiaren atarian izan ziren. Bertan Aiuurri astekariari aitortu ziotenez, askoz gehiago dira orain arte internet bidez jasotako proposamenak.

Herritarrek azken momentura arte proposamenak eginez jarraituko dutela uste dute eta, beraz, azken txanpari adi begira daude. Urnietarrek parte hartzeko aukera datorren otsailaren 12ra arte izango dute.

PARTE HARTZEA

Urnietan erroldaturiko 16 urtetik gorako edozeinek proposamenak aurkezteko aukera izango du. Proposamenak egiteko, urnietarren etxetara bidalitako eskuorria bete beharko dute eta herriko puntu ezberdinetan dauden kutxatan utzi beharko



Urtarrileko batzaraldian 2017ko aurrekontu proposamenari baiezkua eman zioten.

dute: Bertan, Lekaio, Kiroldegia, Jubilatuen Egoitza, Anbulatorioa, Egape ikastola, Azkorte, Presentación de Maria eta Sale-siarrak ikastetxeetan, hain zuzen. Horrez gain, urnietan.eus webgunearen bidez ere parte har daiteke.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hainbat baldintza bete beharko dira:

1. Udal-eskumenekoak diren proposamenak, jardueraren lotuta: obrak, hirigintza eta mantentze-lanak.

2. Ekonomia edo/eta teknika aldetik bideragarriak diren proposamenak.

3. Iraunkortasun ekonomiko eta finantzarioa bermatzen dituzten proposamenak.

4. Urnietan bizi diren herritar guztien interesa norberaren interesen gainetik jartzen duten proposamenak.

5. Udalerriko auzoen arteko oreka bermatzen duten proposamenak.

6. Udal-eskumenekoak diren proposamenak.

Izen-ematea: Urnieta.eus

Gazte enplegua sustatzeko egitasmo berritzailea abian

Enplegu kualifikatua sustatzeko egitasmoa

Postontzia: Beterri-Buruntzako Udalak

6.000.000 euroko apustua egin du Garapenek gazte enplegua sustatzeko. 2014-2020 aldirako Euskadiko Programa Operatiboan kokatzen da proiektua, eta Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du erdibana, eskualde garapeneko hogeitazentzaren parte-hartzearekin.

AKTIBATU

Lehen fasean pertsonengan motibazioa, erantzukizuna, helburuak kudeatzeko gaitasuna, komunikazioa eta abar sustatzea du xedetzat. Helburua pertsonak prestakuntza pertsonalizatu baten bitartez eta co-

ach baten laguntzaren bitartez aktibatzea da; horretarako, alderdi psikologikoak eta emozionalak ez ezik, lanbide-garapena lortzeko behar diren kompetentziak ere landuko dira.

LANEKIN

Enpresan prestakuntza eskaintzen da lanpostu jakin bat betetzeko, eta enpresako irakasle batek bere gain hartzen du irakasteko eta ikasitakoa ikuskatzeko ardura. Prestakuntzak 300 ordu inguru iraungo du.

KOKATU

Praktikak egiteko hiru hilabete-tetik sei hilabetera bitarteko egonaldia gauzatu behar dira enpresetan, lanpostua eta lan-

bide-profila kontuan hartuta. Enpresak gidatzen du prozesu osoa, eta Hazilan proiektuko teknikari batek egiten du jarraipena.

ENPRESA-PROIEKTUAK

Lanbide-gaitasuna indartzen du enpresa-proiektuetan parte hartzeko aukera emanez. Proiektuak honako arlo hauekin lotuta egongo dira: nazio-arteko merkataritza, berrikuntza eta dibertsifikazioa, teknologia berriak, eta abar. Hautatutako pertsonak errefortzuprestakuntza (200 ordu) jasoko dute proiektuan sartu aurretik.

Informazio gehiago Andoaingo Urigain etxean.

NEKAZARITZA

Urkullu Lehendakaria Urnietan izan zen, ENBAren batzarrean

Euskadiko ordezkari-tza instituzional gorena Urnietan izan zen aurreko igandean, ENBA sindikatuaren urteko batzarrean parte hartzeko. Urnietako Salesiar ikastetxearen areto nagusian egin zen

ekitaldian, Urkullu lehendakariak eta ENBA sindikatuko lehendakari Goenagak hitza hartu zuten. Foru Aldundiko ordezkariak ere Urnietara hurbildu ziren.

ENBA nekazarien sindikatuak 25. urteurrena bete du eta Urnietan joan zen igandean egin zuten urteko batzarrean, **Iñigo Urkullu** lehendakariaren eta **Markel Olano** Gipuzkoako Ahaldu Nagusiaren bisitaldia jaso zuten. Baita Urnietako alkate **Mikel Pagola**rena ere. Bisitaldia egiteaz gain, lehendakariak batzarrari amaiera eman zion hitzaldi txiki batekin, sektoreak duen garrantzia nabarmentzeko: “16.000 pertsonatik gora ari dira lanean bertako 15.500 esplotazioetan eta azken urtean bilakaera positiboa izan du, nekazaritza-errentak %2,5 egin baitu gora”.

Urkulluk ENBA sindikatuaren lana aitortu zuen, premia berrietara egokitzeko jakin duelako. Sektoreak etorkizunera begira dituen erronkei dagokienez, belaunaldi berrien txanda bermatu behar dela adieraztearekin batera, Jaurlaritzaren prestutasuna agertu zuen. Eta adierazitakoa frogatzeko, Urkullurekin batera Urnietara bertaratu zen Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturretako sailburu **Arantxa Tapia** ere.

Horiez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza sailburuorde **Bittor Oroz**, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko diputatu **Ainhoa Aizpuru** ENBAren batzarrean izan ziren.

OMENALDIA ETA BATZARRA

Hogeitabosgarrena izatean, berezia izan zen ENBAren urteko batzarra. Efemeridea, gainera, ibilbide osoan sindikatuko lehendakari izan diren lana txalotzeko aukera izan zen. Izan ere, batzarrean ENBAko presidenten izandako **Jon Arruti**, **Mikel Arteaga** eta **Iñaki Goenagari** omenaldi txikia egin zieten baikoitzari txapel bana oparituz.

ENBAko presidenten Iñaki Goenagak sektoreak bizi duen egonkortasuna azpimarratu zuen bere adierazpenean; “Ekoizpen sektoreak egituratuta daude eta eragile ezberdinen arteko elkarlana giro baketsuan egiten da. Aurrera begiraturuz, geroz eta urbanoagoa den gizartearen behar eta nahiak hausnartu eta gure azpiegitura guztia gertuko merkaturatu asetzera bideratu beharrean gaude, ekoizle eta kontsumitzaileak eskutik helduta, bi aldeetako dinamika berria moldatuz”.

Goenagaren esanetan, baserriak etor-



Jon Arruti ENBAko kidea, Ainhoa Aizpuru Foru diputatua, Mikel Arteaga ENBAko kidea, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko lehendakaria, Iñigo Urkullu lehendakaria, Iñaki Goenaga ENBAko lehendakaria, Markel Olano Ahaldu Nagusia, Arantxa Tapia Jaurlaritzako sailburua eta Mikel Pagola Urnietako alkatea.

“Baserriak etorkizun oparoa du elikadura osasuntsu, lurralde kudeatzaile eta jasangarritasunaren bermea den neurrian”
Iñaki Goenaga

kizun oparoa izango du: “Baserritik ogibidea atera nahi duten gazteentzat etorkizuna badago, are gehiago gure gizartearen elikadura, natura, paisaia, jasangarritasuna, bertakotasuna eta beste hainbat kontzeptu nagusitzen ari direnean”.

Batzarrean Valentziako Unibertsitate Politeknikoan Ekonomi Aplikatuaren katedradun **Jose Maria Garcia Alvarez-Coque** ere hizlari aritu zen, besteak beste nekazaritza sektoreak mundu aldakor batean izan dezakeen etorkizunari buruzko gakoak eskainiz.

OHITURA ZAHARRA BERRITU ZUTEN



Eguraldi kaskarrari aurre egin eta kalez kale egin zuen errondarekin, ohitura zaharra berritu zuten. Aiurri.eus webgunean argazkiak eta bideoa.

TRADIZIOA

Santa Ageda bezpera baserriz baserri, kalez kale

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, beste urte batez Santa Ageda bezperako kantu erronda egin zuten Andoainen. Bazkalostean, San Esteban auzoan hasi eta landa eremuko beste tokietaraino kantari

ibili ziren Goiburuko auzotarrak. Larramendi Bazkunak iluntzean ekin zion kantu errondari, eguraldia are zatarragoa zenean. 2018an hogeita bost urte beteko dira kantu erronda abian jarri zutenetik.



Goiburu auzoko taldea, Sega elkarteak antolatuta. Korrikan kilometroa erostera bideratuko dute aurten bildu duten dirua. Elkarteak kilometro horretan parte hartzera animatu ditu auzotar guztiak.

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA



Bazkunaren kantu taldeko hiru beterano: Juantxo Arregi, Andoni Arribillaga eta Aitor Amutxastegi.



Eztarri fina erakutsi zuten Andoaingo kaleetan zehar jardun zuten kantariak.



Euripean kantatu behar izan zuten Larramendi Bazkuneko kantariak.



Susana Cencillok Uxue Olazagirre eta Iزارo San Buenaventura gaztetxoak laguntzaile izan zituen.

TRADIZIOA



Maialen Lopez de Munain eta Maddi Jauregi adar-jotzaileak eta Miren Koro Jauregi aterkiari eusten.



Jokin eta Oier Jauregi anaiak kantuan, Iñaki Lopez de Munain panderoarekin eta Nekane Zabala trikitixarekin.



Juan Lopez de Munain eta Joxe Mari Iturrioz. Azken honen Iturrioz etxean geldialdia egin zuen Goiburuko taldeak. Merienda ederra zuten zain bertan.



Tere Lopez de Munain kantaria eta Leizotz aldeko Aramanea baserriko Rikardo Etxeberria hizketan.



Baserritik baserrira zenbaitetan lokatzetan ibili behar izan zuen Goiburuko taldeak.



Bordatxiki baserritik behera jarraitu zuten kantu errondan.



Ion Beloki koplak kantaria eta Unai Ormaetxea kantari eta diru-biltzailea, umorea jarriz taldean.



Antzizar baserriko Joxeramon Berrondo eta honen ama Maria Dolores Ayerza koplak abestera hurbildu ziren Joxe Joakin Jauregi eta Manex Iruretagoienarekin batera.

ANDOINGO HAMABIGARREN PIANO JAIALDIA

Deiadar pozarren, aurtengo jaialdiaren emaitzarekin

Euskal Herri osoko jaialdi bilakatuta, beste behin ere antolatzaileek aurrean jarritako erronka handiari bikain erantzun zioten. Ezin bakarrik egin eta langintza horretan laguntzaileen ekarpena ezin-

bestekoa izan da. Pozarren zeuden, normala denez, Deiadar elkarte-ko kideak. Datorren urteari begira jarrita daude, ea 2018an eguraldiak laguntzen duen. Huraxe izan baitzen eragozpen bakarra.



Deiadar elkarteko kideak eta laguntzaileak igande iluntzean, Piano Jaialdia amaitu eta gero.

Andoingo Piano Jaialdiaren hamabigarren edizioa bukatu berritan, **Deiadar** elkarte antolatzaileetako **Txitxu Castro** eta **Ainhoa Aiertzak**, Aiurri aldizkariarentzat balorazio azkarra egin zuten: “Oso gustura gaude, astea nola joan den ikusita. Larunbat eta iganderako eguraldiak ez digu lagundu, baina izena eman zuten 758 partaideetatik gehienak azaldu dira, gaixotasunagatik-edo huts egin duen baten bat kenduta. A, B eta C mailatan bakarleri gisa eta lau eta sei eskutara emanaldi politekin gozatu ahal izan dugu guztiok, eta amaierako kontzertua amaitu bezain pronto, entzule, guraso eta irakasle ugari etorri zaigu zorionak ematera. Horrek, besteak beste, esan nahi du Euskal Herriko bazter guztietatik hurbildu den jendeak une gozagarriak igaro dituela Basteron”.

Ehunka partaide dituen asteburuko jaialdiaz gain, astean zehar egunero izan da kontzerturen bat entzuteko aukera: “Pianoa ardatz hartu arren, beste musika tresnak ere entzun ahal izan dira, zein baino zein erakargarriago. Hasi



Txitxu Castro, Myriam Ulanga eta Ainhoa Aiertza Deiadarko kideek txalo zaparrada jaso zuten egindako lanaren aitormen gisa.

musika eskolako umeek egin zuten kontzertu didaktikotik, jada profesionala den Mikel Urdangarin biolin-jotzailearekin bukatuz, emanaldi bakoitza bere berezitasunekin agertu zaigu eszenategian”.

Xehetasun guztiak ondo lotzea eskatzen duen jaialdia da Andoingoa,

egundoko eginahala eskatzen dena antolatzaileei: “Pozik gaude dena pentsatu bezala atera zaigulako. Eskerrak eman behar zaizkie babesaren eman diguten erakunde pribatu eta publikoei eta egunotan lanean ondoan izan ditugun boluntarioei. Musika eskolako ikasle gazte ugari aritu da zeregin ezberdinetan,

goizean goizetik Basterora etorrira. Urte zehar errepikatzen dutenak dira, eta horiek ere gertutik sentitzen dute jaialdia”.

HITZORDU GARRANTZITSUA ANDOINGO PIANO JAIALDIA

Euskal Herrian ezinbesteko topagune bilakatu da Andoingo Piano Jaialdia. “Halaxe da egia esan behar bada. Otsailko hilabeteari eusten diogu, eta hainbat musika eskoletako irakasle eta ikasleek garai aproposa ikusten dute ikas-turtean zehar egiten dutena erakusteko. Are gehiago, interesa edukitzen dute jaialdian zehar ikusi eta entzun dituzten obra berriak beren herrietara eramanez eta han prestatzeko”.

12. edizioak utzitako zapore gozoaz gozatzeko ia denborarik hartu gabe, 2018ra begira jarri dute burua jada: “Hurrengo egunetan balorazioa egiteko tarte edukiko dugu, hobetu beharreko alderdiak aztertuz. Eta ondoren, berehala hasiko gara 13. edizioarekin, tamaina honetako jaialdi batek hilabetetako lana eskatzen baitu”.

ANDOINGO HAMABIGARREN PIANO JAIALDIA



Aipamen berezia jaso zuten piano-jotzaile gazteak ageri dira argazkian. Tartean, Oihane Ulanga Etxeberria andoaindarra dago, ezkerretik hasita hirugarrena.



Castro eta Ulanga musika irakasleen ikasleek kontzertu didaktikoa eskaini zuten ostegunean.



Ezinbestekoa izan da laguntzaile boluntarioen lana, Piano Jaialdia ondo irten zedin.



Andoaingo Udal musika eskolakoek ere parte hartu dute jaialdian; ostiralean kontzertua eskaini zuten.



Imanol Iribarren tronboi-jotzaileak eta bere taldeak (Martin Holland, Jesus Garcia, David Cid, Asier Ardaiz eta Jon Zufiaurre) jazz kontzertua eskaini zuten asteazkenean.



Bideo sorta, elkarrizketak, argazkiak...

Eduki gehiago
www.aiurri.eus webgunean
komunitatea atalean

aiurri.eus/Komunitatea/pianojaialdia

ELKARRIZKETA

Agurra eta omenaldia Anbrosia Olabideko tabernariei

Martha Susana Canalek eta Juan Carlos Milano Anbrosia Olabide eraikinean dagoen jubilatuen etxeko tabernaz arduratu dira azken hamar urteetan. Otsailaren 15ean taberna utzi eta Galiziara doaz,

baina andoaindarrak bihotzean eramango dituztela aitortu dute. Taberna uzteko arrazoiak, urte horietan bizi izandako bizipenak eta beste zenbait xehetasun, Aiurriri kontatzeko tartea hartu dute.

Zergatik zoazte taberna uztera?

Juan Carlos Milano: Arrazoi nagusi baten-gatik: Geure semeak eta bere emazteak aitona-amon egin gaituzte; Portugalen bizi dira eta haien ondoan egoteko premia sentitzen dugu. Nahiko gertu edukiko ditugu, ordubetera errepidez. Adinean aurrera goaz eta ez genuke nahi gure bi ilobek pertsona arrotzen gisa ikustea gu biok. Tabernarekin daukagun kontratua oraintxe amaitzen da, eta une egokia ikusi dugu bizitza berri bati ekiteko.

Martha Susana Canale: Bihotzak familiagatik gertu egotea eskatu izan ez baligu, gogotik saiaturiko ginen tabernarekin kontratua berritzen.

Eta nora zoazte?

M.S.C.: Otsailaren 15ean azken laneguna bete eta Galizara goaz, Cangas de Morrazo herrira (Pontevedra). Han kafetegi bat irekitzeko aukera topatu dugu; hondartzatik ehun bat metrora dago eta Rio de la Plata izena jarriko diogu. Badakigu andoaindar ugari aukeratu ohi duela Galizia oporrak igartzeko, eta beraz, han inguruan badabiltza ez dezatela lotsarik eduki bisitatxoren bat egiteko guri. Abegi jatorra egingo diogu, andoaindarrek hamar urtetan egin digutenaren tamainakoa.

Nongotarrak zarete?

J.C.M.: Emaztea Italian jaioa da, eta Uruguain ni. Uruguain ezagutu ginen, irakaskuntzan ari ginela institutu berean. Berak musika irakasten zuen eta haurren eta helduen abesbatzak zuzentzen zituen, eta nik perkusioa irakasten nuen.

Zer dela eta etorri zineten Andoainera?

J.C.M.: Korralitoaren antzeko krisia pairatu zuen Uruguaitik mende honen hasieran; nik banku batean egiten nuen lan, baina kale gorrian geratzeko garbitegi bat ireki nuen; negozio hura ere ez zitzaidan ongi joan. Orduan, biok erabaki genuen Europako bidea hartzea, garai batean Europako eta Euskal Herriko jendeak egin



Martha Susana Canale eta Juan Carlos Milano Anbrosia Olabideko tabernan.

zuen gauza berbera eginez, baina alde-rantzizko norabidean. Edozein modutako lanpostuari heltzeko prest irten ginen. Mallorcara abiatu ginen lehenbizi, han bizi baitzen semea, eta agudo, 2007an, Andoaingo jubilatuen taberna hartzeko aukera sortu zitzaigun.

Hizpide dugu azkena aldiari Uruguai, Mujika presidente oihagatik batez ere...

J.C.M.: Mujika boterera iritsi aurretik aldegin genuen handik, baina urrun egon arren fisikoki, gertutik bizi izan dugu hango prozesu politiko guztia. Egia esan, 250 urtez eskuineko alderdiek agindu ostean, aurreneko aldia zen ezkerreko alderdi bat gobernura iristen zela, Tabare Vazquez lehenbizi eta Mujika ondoren. Mujikak urrats herrikoiak eman zituen; boterea herritarrengana hurbildu zuen.

Uruguai nahiko ezezaguna egiten zaigu...

J.C.M.: Oso herrialde txikia da. Esan ohi da bi potentzia handiak (Argentina eta Brasil) banatzeko sortua izan zela; estatu tapoia deitzen diote politikoki. 60 milioi bat biztanle izango ditu Argentinak, 500

“Andoainera etortzeko aukera bidera atera zitzaigunean, ez genuen bi aldiz pentsatu beharrik izan”

milioi Brasilek, eta horien ondoan Uruguai hiru milioi eta erdi besterik ez ditu. Espainiatik eta Italiatik joandako emigranteekin hornitu zen bere hasieran, eta horrexegatik Uruguai giro oso ohi-tuta dago kanpoko jendea hartzera. Oso tradizio abegikorreko herria izan da beti. Uruguaiarrentzat norberaren familia bezainbat garrantzitsuak dira adiskideak. **M.S.C.:** Orain ehun bat urte presidente izan zen Jose Batlle Ordoñez ameslari handia izan zen eta egundoko aurrerapenak ekarri zituen gizartearen mesedetan. Uruguai oso herrialde aurreratua izan da geroztik. Gure gurasoetatik hasita, denok jaso izan dugu hezkuntza, bai lehen mailakoa eta baita bigarren mailakoa ere. Beti ezagutu izan dugu askatasun erlijiosoa, eta balore handia da guretzat bestearekiko errespetua. Katolikoak, ebanjelistak,

protestanteak, judutarrak... denak bizi dira armonian Uruguain.

Zuek ez daukazue euskal jatorririk, ezta?

J.C.M.: Ez. Baina beti erakarri izan gaitu Euskal Herriak. Uruguain ginela, telebistako dokumentalak ikusten genituen. Helikopteroez hartutako irudiekin zorutzen egoten ginen telebista aurrean; mendi parajeak, bailarak, herriak, kostaldea..., dena iruditzen zitzaigun polita. Zuen hizkuntza, kultura eta folklorea zaintzeko daukaguen grinak ere beti eragin izan digu arreta. Esate batera, baserriarrez jantzi eta kalera kantari ateratzeko ez daukazue inongo erreparorik; inork ez dizue folklorista deituko zentzu peioratiboan, munduko leku askotan bezala.

Andoainera etortzeko aukera bidera atera zitzaigunean, ez genuen bi aldiz pentsatu beharrik izan. Tabernaren ardurak ez digu utzi turismo askorik egiten, baina gozatu ederra hartu izan dugu kostaldera edo barnealdera joan izan garenean. Hamar urte pasa eta gero, niri oraindik ere harridura eragiten dit Andoaindik Lasarterako bidean ezker-eskuin topa daitekeen paisajeak; erreka alde batera, mendi malkartsu eta harritsuak bestera... Ez dakit jabetzen zaren bertakoak, zein altxor naturalaz inguratuta bizi zaren.

Zer nolako bizipenekin zoazte Galiziarra?

J.C.M.: Une gozoak eta ez hain gozoak daramatzagu, beti gertatu ohi den bezala, baina, oro har, zoragarria izan da hemengo bizialdia. Etorri berritan, Uruguaiako familiarrekin telefonoz hizketan aritzen ginenean, beti esaten ziguten kontuz ibiltzeko hemen, kalean lehergailuak besterik ez omen zegoelako. Alde horretatik, garbi esan dezakegu komunikabideek guztiz itxuragabeko irudia zabaldu izan dutela Euskal Herriaren gainean.

M.S.C.: Juan Carlosek aipatzen dituen une ez horren gozoak, tabernako ordutegiak eragindakoak dira batez ere. Astelehene-tik astelehenera eta hamaika orduz ireki



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ELKARRIZKETA

behar izan dugu, eta horrek asko mugatu gaitu. Berebiziko pena sentitzen dugu ezin izan dugulako sozializatu Andoaingo jendearekin, tabernako bezeroekin soilik. Tabernaz kanpo bakar batzuekin adiskidetu ahal izan dugu, eta maitagarriak direla frogatu dugu: Agustin Gonzalez, Petra Elser, Trentxiki Argazki Elkarteko ki-deak... Nolanahi ere, Anbrosia Olabide eraikineko langileekin eduki dugu eguneroko tratu handiena, eta hara non, lehen-go egunean, biok inondik ere espero gabe, egundoko agurra egin ziguten kale hezitzaileek, eguneko zentrokoek, garbitzaileek eta harrerakoek. Bihotzeraino heldu zitzaigun keinu horrekin konturatu ginen jendeak estimu handia hartu digula urte hauetan, nahiz eta espreski ez digun adierazi. Izan ere, ez da topikoa amerikarrok agerikoagoak izatea sentimenduekin, eta zuei euskaldunei gehiago kostatzea barruan daukazuena adieraztea.

Petra Elser aipatu duzu. Noraino iritsi zara euskararekin zeu, Juan Carlos?

J.C.M.: Euskara maila nahi baino eskasagoa daramat Galiziara. Beti iruditu izan zait esku zabalik hartzen zaituen herriari eskerrak emateko modua dela bere hizkuntza ikastea, eta horrexegatik murgildu nintzen Petrak emigranteekin daukan programa horretan. Baina, esan bezala, atzera eginarazi zidan tabernaren ordutegiak.

Ezaugarri jakin bateko bezeroak dauzka jubilatuen tabernak....

M.S.C.: Bai. Esango genuke 60 eta 70eko hamarkadetan Espainiako herrialdeetatik hona etorri ziren emigranteak direla bezerorik gehienak. Euskaldun gutxi hurbildu ohi da, eta horiek gaztelaniaz egiten dute hemen. Hamar urte hauetan gauza asko ikasi dugu bezero horiekin: hasteko eta behin, jende adinduekin pazientzia eta entzuteko gaitasuna edukitzen. Bizipen eta eskarmentu sakoneko jendea da gehiena. Badaukate zer kontatua: 1936ko gerra, gerra osteko gosea eta bizi baldintzak eskasak, jaioterria utzi eta emigratzera behartu zituzten fenomenoak...

Aldatzen doa erretiroa hartu duen jubilatuen profila. Zer nolako etorkizuna ikusten diozue tabernari?

M.S.C.: Ez dakigu norantz, baina eboluzionatu egin beharko du tabernak, gure iritziak. 80 urtekoak eta gehiagokoak dira bezerorik gehienak. Hautzarro, kultura,



Martha Susana Canale eta Juan Carlos Milano Anbrosia Olabideko tabernan.

“Anbrosia Olabide eraikineko langileekin eduki dugu eguneroko tratu handiena eta egin ziguten omenaldiarekin jendeak estimu handia hartu digula konturatu gara”

bizipen jakin batekoak dira, baina ez dute zerikusirik handirik gaur egun jubilatzen ari diren pertsonekin edo jubilatzeke urte askorik geratzen ez zaienekin. Egia da jubilatuen elkarteak jende mordo mugitzen duela, baina horien interesa antolatuta ohi diren ekintzetan parte hartzetik doa, ez tabernan sartu-atera egitetik edo kartetan jokoan ariztetik.

Ba al daukazue asmorik agurreko ekitaldi txikiren bat prestatzeko azken lan egunean?

J.C.M.: Ez, egia esanda. Nahiko genuke zer edo zer egin, baina mudantza nahiko gogorra egiten ari zaigu, eta Cangasko kafetegia otsailaren 20an ireki nahiko genuke. Lanpetuta gabiltza egunotan, eta ez daukagu denborarik ezertarako. Hori bai, andoaindarrak gonbidatuta daude egunotan hurbil daitezten tabernara eta gurekin hitz-asperturen bat egin dezaten.

Anbrosia Olabide eraikineko langileen omenaldia eta esker ona

Urte hauetan guztietan Anbrosia Olabide eraikuntzan lantokia duten kale hezitzaile, garbitzaile, harrerako nahiz Eguneko zentroko langileek hurreman zuzena izatea egokitu zaie. Estimua handia hartu diete eta agurreko afari antolatu zieten duela egun gutxi.

Ikurriña eta Uruguako bandera dituen txapela eta zapi bana oparitzeaz gain, idatzia eta bertsoa eskaini zieten. Gutunean hauxe irakur zitekeen: *“Modu batean zuen Uruguay maitea, gure egin duzue eta “gure” Euskal Herri maitea, zuena ere! Zuen herri-kide, lagun eta zergatik ez esan, familiako sentitu gara une batzuetan eta hori ez dugu sekula ahaztuko. Nahiz eta hemendik urrutira joango zareten, gudan eta gugandik gertu jarraituko duzuelakoan gaude. Gure artean sortutako lotura nekez hautsiko du distantziak!”*

Agurreko bertsoa eta guzti jaso zuten Galizia aldera joan aurretik.



Agurreko afarian, jasotako opariekin.

BERTSOA

Ia hamar urtez laguntasunak zuekin elkartu gaitu, zailtasun denen gainetik irauz izana a ze merituz! Hori dela eta nahi dizuegu eskertu eta saritu, txapel hau eta zapi hau zuei dizuegu oparitu, bihotzarentzat estalkirikan ez degula aurkitu.

Txotx'17

Euskal kantu liburuxka Aiurriekin batera jasoko dute Aiurriko harpidedunek, laster!!

2017ko egutegi gehiago nahi? deitu: 943 300 732

Pagazaurtundua gogoan



Andoaingo PSE-EEK omenaldia egin zion, haren heriotzaren urteurrenean.

Otsailaren 8an hamalau urte bete ziren ETak Joseba Pagazaurtundua erail zuenetik. Joan zen asteazkenean PSE-EEK lore eskaintza egin zuen haren omenezko eskulturaren.

Hiru egun lehenago, otsailaren 5ean, Pagazaren senideek ekitaldia antolatu zuten eta bertan Covite, UPyD eta beste hainbat elkarteetako ordezkariak bildu ziren.

Felicitas Irigoras zendu da



Felicitas Irigoras Alustiza joan zen ostiralean hil zen eta bere aldeko hiletan elizkizuna larunbat honetan egingo dute, Santa Krutz elizan iluntzeko 19:30ean hasita.

Felicitasen aita zein ama kartzelara zigortu zituen

frankismoak Errepublikaren balore demokratikoak defendatzeagatik, eta harrezkero gurasoen zein Andoaingo beste zapalduen memoriaren alde jardun zuen. 50eko hamarkadan Etxeberrietan bizi zen Irigoras Alustiza familiaren egoera ekonomikoa zela eta gaztetan Alemaniara emigratu behar izan zuen lan bila. Erretiroa hartu ostean, Andoainera itzuli zen.

Geroztik oroimen historikoaren alde Andoain antolatuta izan diren ekimen guztietan parte hartu izan zuen. Emakume eskuzabala izateaz gain, nortasun sutsukoa zen.

Stop Desahucios, hitzaldia

Ostiral honetan, otsailak 10, Andoain hitzaldia eskainiko dute Kaleratzeak Stop elkarteak, maileguei

ezarri izan zaizkien klausulak direla eta. Argibideak emango dituztela iragarri dute. 18:30etik aurrera Urigainen.

Gidabaimena euskaraz



Sarituak, Ainara Rodriguez zinegotziarekin eta Bengoetxea auto-eskolako Josune Amantegirekin batera, irabazleek 400 euroko saria jaso ostean.

Ainara Paredes eta Xabier Ibar-guren gazteak 2016an gida baimenerako atal teorikoa

euskaraz egin eta gainditu zuten 24 andoaindarren arteko zozketan irabazle izan dira.

Kalejira bana otsailaren 17an eta 18an Andoaingo kaleetan

Kaldereroen bi konpartsa elkarrekin lanean

Aurtengoan ere kaldereroen bi konpartsa beren melodia eta zartagi hotsez Andoaingo kaleak alaitzen ariko dira. Otsailaren 17an eta 18an izango da, hurrenez hurren. Konpartsak entsegu bakarria iragarri du otsailaren 15erako, Berrozpe ikastetxean. Antolatzaileek Andoaingo herritarrak bertan parte hartzera gonbidatu dituzte.

ONDARRETA OTSAILAREN 17AN

Ondarreta ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoek osatuko konpartsa otsailaren 17an abiatuko da 14:30etatik aurrera.

ONTZA OTSAILAREN 18AN

Kaldereroen konpartsak Ontza elkarte izango du abiapuntu otsailaren 18an, arratsaldeko 17:00etan hasita. Zahar egotzian tradizio bihurtu den bisitaxoa egin ostean, Goikoplazara abiatuko dira bertan kanpaldia



Konpartsak entsegu iragarri du otsailaren 15erako, 19:00etan Berrozpen.

jartzeko asmoz. Udaletxean Udal agintariak harrera egingo diete eta Goikoplazan abesti sorta kantatu ostean, konpartsak kideek Zumea plazarako bidea hartuko dute, Kale Nagusian barrena.

Urtero legez Gora Kaletxiki txarangak jarriko dio doinua konpartsari. Antolatzaileek aforria prestatuko dute Ontzan gau

horretan, eta bertan aflatzeko interesa duenak telefonoz deitu beharko du: 679 043 812 (Jexux). Bi taldeak, beraz, elkarlanean aritzeko prest agertu dira. Ondarretako gurasoek Andoaingo kaldereroen konpartsan parte hartuko dute. Eta bestalde, Gora Kaletxiki txarangak ikastetxeko konpartsari musika jarriko dio.

Aurtengoan Leizotz aldean ibiliko dira Axeri dantzako kideak

Puska biltzea larunbatean

Larunbat honetan, Leizotz auzoan barrena ibiliko dira Axeri dantzariak, aurtengoan. Goizeko 08:00etan jarri dute hitzordua; han bertan jantzi eta Leizotz auzoko erronda egitera abiatzeko. Baserri atarrietan Axeri Dantza osatzen duten zortzi dantza edo jokoetakoren bat edo beste egin ohi dute, txistularien doinuei jarraiki.

Bosgarren urtea da baserri giroko inauteri hauxe ospatzen dela. Andoaingo lau baserri auzoetan (Buruntza, Goiburua, Leizotz eta Sorabilla) inauterrien tradizioa zabaltzea du helburu, Axeri Dantza elkarteak antolatuta. Parte hartu nahi duenak, emailaz ere eman dezake izena.

axeridantza@gmail.com



Puska biltzea, iaz Buruntzan.

ESTALPE BERRIA ERABILTZEN HASI DIRA



Joan zen asteartez geroztik merkatu plaza Makaldegian egiten da berriro. Estalpe berria ireki zuten otsailaren 7an.



KIROL ALBISTEAK

On Bosko krosa eta lehen mailako kirolarien bisitaldia

Kirol jarduerak Salesiar ikastetxearen astean

On Bosko herri krosaren hirugarren edizioa egin zuten igandean, Andoaingo, Urnietako eta Berteri-Buruntzako gainerako herrietako parte hartze handiarekin.

Astebeteko epean lehen mailako kirolariak hurbildu dira Salesiar ikastetxera, tartean **Jokin Altuna** pilotaria eta **Richard Oribe** igerilaria.

Jokin Altuna pilotaria izan zen Urnietako ikasleen galde-erantzunak erantzun zituen azken kirolaria. Amezketako pilotari gazteak bere ibilbide profesionalaren berri ematez gain, hainbat bitxikeria azaldu zuen adi-adi zituen DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen aurrean. Ikastetxetik aditza eman zuten, "edozein partida jokatzen duenean adina izerdi atara du gure ikasleek prestatutako galdeketa erantzuten".

Richard Oribe Donostian jaiotako igerilari paralinpikoa kultur astearren hasieran izan zen Javier De Aymerich entrenatzailearekin batera. Kirolari ezaguna eta maitea da, azken urteetan donostiar asko hari



Ibai Alba, Lourdes Colomo eta podiuma osatu zuten gainerako korrikalariak.



Jokin Altuna pilotaria.

Donostia Eguneko Urrezko Danborra ematea eskatzen ari baitira.

Kirolari modura lortu duen palmaresa bikaina da. Atlantako paraolinpiar jokoetan (1996) urrezko hiru domina eta munduko bi errekor erdietsi zituen, eta zortzi urte geroago Atenasko paraolinpiar jokoetan urrezko, zilarrezko eta brontzezko bana lortu zituen. 2006ko Europako Txapelketan, berriz, hiru urrezko domina lortu zituen. Munduko hainbat errekorren jabe ere bada. 2008ko Kirolari Onenaren Euskadi Saria jaso zuen.

Oriberen indarra eta kementa eredugarria da ikasleentzat.

On Bosko III. Krosa		
2017-2-5. Sailkapena		
Gizonezkoak		
1. Ibai Alba	0:23:53	Hernani
2. Raul Gomez	0:24:00	Lasarte-Oria
3. Asier Martinez	0:24:11	Urnietako
4. David Martin	0:24:30	Lasarte Oria
5. Mikel Garate	0:24:42	Azkoitia

Emakumezkoak		
1. Lourdes Colomo	0:28:53	Zizurkil
2. Hoki Guerrero	0:29:48	Hernani
3. Ana Megias	0:30:44	Hernani
4. Eva Esnaola	0:33:02	Hernani
5. Estibaliz Benito	0:34:41	Errenteria

Sailkapen Orokorra			
1	Ibai Alba	0:23:53	Hernani
17	Unai Martinez	0:26:25	Urnietako
18	Norman Cuenca	0:26:35	Urnietako
20	Unai Lizeaga	0:26:38	Urnietako
27	Jon Ramos	0:27:34	Urnietako
31	Jon Imaz Perez	0:28:11	Andoain
33	Jon Vidaurreta	0:28:14	Urnietako
36	Josu Arregi	0:28:25	Andoain

37	Raul Fradejas	0:28:26	Urnietako
39	Jon Labaka	0:28:36	Urnietako
50	Mikel Garmendia	0:29:56	Urnietako
62	Ion Koldobika Iribar	0:31:48	Urnietako
64	Josu Arregi	0:31:50	Andoain
67	Dioni Agredano	0:32:39	Andoain
70	J.Manuel Hernandez	0:33:16	Andoain
71	Martxel Prego	0:33:17	Andoain
73	Jonatan Santano	0:33:30	Andoain
76	Ander Paco	0:33:49	Urnietako
81	Jonathan Lopez	0:34:13	Urnietako
83	Eduardo Rodriguez	0:34:20	Urnietako
84	Patxi Cuenca	0:34:22	Urnietako
89	David Belver	0:34:31	Urnietako
94	Enrique Miguel	0:34:55	Andoain
96	Begoña Cao	0:35:11	Andoain
97	Javier Gallo	0:35:13	Andoain
98	Jose Luis Lopez	0:35:14	Urnietako
102	Jon Mikel Kortza	0:35:46	Andoain
104	Joseba Unanue	0:35:48	Urnietako
113	Aizpea Goenaga	0:40:36	Urnietako
114	Idoia Esnaola	0:40:49	Urnietako
121	Pilare Goenaga	0:42:00	Urnietako

Sailkapen osoa: Herrikrosa.eus

Benjamin eta alebin mailako igeriketa probak



Joan zen larunbatean benjamin eta alebin mailako 50 metroko sariaren sailkapen probak jokatu ziren Lasarten. Joaneko modukoa izan zen, itzulera igande honetan ospatuko baita Legazpin. Taldetik adierazi dutenez, "gogotsu aritu ziren lehiak sortzen duen zirrarragatik eta igande

honetarako sailkapena jokotan zegoelako. Emaitza eta sailkapen ofizialak irten bitartean, gure taldetik 14 bat igerilari Legazpiko finaletan izango direla uste dugu". Banakako probaz gain, 4x50 estilo libreko errelebo misto probak izan ziren benjamin eta alebin mailatan.

Pilota partidak Urnietan

Otsailak 11, larunbata. 10:15
Udaberri Txapelketa, pala motza
Urnietako 2- Eple.
Euskal Herriko Txapelketa, pala motza
Urnietako- Tennis Club Pamplona.

Trinketea, eskuz binaka
Gipuzkoako txapelketa. Jubenilak.
Urnietako-Hernani 1
Gaska pilotalekua. Donostia.
16:00 Jubenil maila

Urnietako bigarren eta Leizaran hirugarren

SENIOR MUTILAK:

Leizaran 25-30 Eibar

Soraluze 28-29 Urnietako

15. jardunaldia, asteburuan:

Urnietako-Elgoibar. Lar, 19:00.

Urola-Leizaran. Lar, 16:15.

SAILKAPENA. 14. jardunaldia:

1. Ordizia 26

2. Urnietako 20

3. Leizaran 18

4. Lau Bide 16

5. Ereintza 16

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Ganbara SenM 51-61 Bergara

Ganbara JubM 50-59 EASO

Ganbara KadM [Atsedan]

Partidak Allurralden:

Ganbara KadM-BKL

09:00.

Otsailak 11, larunbata.

Euskalduna-Urnietako Erregional mailako derbia

19. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Orioko 2-4 Euskalduna

Urnietako 2-1 EASO8

20. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Euskalduna-Urnietako. Lar, 17:45.

SAILKAPENA. 19. jardunaldia:

1. Añorga 42

5. Euskalduna 30

9. Urnietako 25

EMAKUMEZKOAK

18. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Allerru 2-8 Urnietako

SAILKAPENA.

1. fasea | 1. multzoa:

1. Touring 40

2. Ordizia 38

3. Ostadar 35

4. Urnietako 35

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larumendi
Kultur Buzina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jauriaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Unistakako
video

Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan), **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 9TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- "Toni Erdman"
Otsailak 11. 19:30-22:00.
Otsailak 12. 19:30.
Otsailak 13. 19:30-22:00.
- **Bakea eta bizikidetzaren zikloa**
"Heroitzaren triangelua".
19:00 Bastero.
Otsailak 16, osteguna.

Urnietan, Sarobe

- "Zipi Zape"
16:00, 18:00. 4 euro.
Otsailak 12, igandea.
- Datorren asteburuan:
"Mascotas"
16:00, 18:00. 4 euro.
Otsailak 12, igandea.

Korrika

Andoain

- Korrika batzordea.
19:00 AEKren egoitza.
Otsailak 20, astelehena.

Farmaziak

Andoain

- Zatarain. Gauez: Etxebeste.

Urnietan

- Castilla. Gauez: Etxebeste.
Otsailak 11 eta 12.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- "Ikimilikiliklik".
Otsailaren 16ra arte.

Musika

Andoain

- **Cobra** eta **Tooth** zuzenean.
22:30 Gaztetxea.
Otsailak 10, ostirala.
- **Anari** eta taldea zuzenean.
21:30 Bastero.
Otsailak 17, ostirala.

Deialdia

Andoain, Bastero

- "Martxoak 8, 8 emakume" ekitaldian omenduko dituzten 8 emakumeak hautatzeko prozesua abiatu da.
Non: Ataria, Allurralde, ambulatorioa, andoain.eus.
Azken eguna: Otsailak 12.

Hitzaldia

Andoain

- **Fiare Andoain** taldearen bilera.
fiare.andoain@gmail.com
18:00 Gabriel Aresti 15.
Otsailak 9, osteguna.
- Guraso euskaldunei zuzenduriko hitzaldia, Iñaki Eizmendiren eskutik.
18:00 Bastero.
Otsailak 16, osteguna.

Lehiaketa

Andoain, Bastero

- **Maskara lehiaketa.** Mailak: 8-9, 10-11 eta 12-14 urte.
Lanak aurkezteko eguna: 17:00-19:00.
Otsailak 21, asteartea.

Dantza

Andoain, Bastero

- "Nagare", dantza eta ikusentzunezkoak bat egiten dituen pieza sakon eta heldua da. Circle of trust taldearen dantzei, Logelaren bideo eta ikusentzunezkoak gehitzen zaizkie ikuskizunean.
21:30 Auditorioa. 10 euro.
Otsailak 10, ostirala.

Kaldereroak

Andoain

- **Otsailak 15, asteazkena:**
Entsegua Berrozpen.
- **Otsailak 17, ostirala:**
14:30 Ondarreta.
- **Otsailak 18, larunbata:**
17:00 Ontza elkarte.

Inauteriak

Andoain, Urnietan

- Karrozak eta desfilea bi herrietan.
Otsailak 25, larunbata.

Jardunaldiak

Urnietan

- Aranzadi elkarte **Pako Etxeberria** forentsearen hitzaldia.
19:00 Lekaio.
Otsailak 23, osteguna.
- "La mirada del otro" dokumentala.
19:00 Sarobe.
Otsailak 25, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Ane Etxezarretak 2 urte beteko ditu datorren otsailaren 16an. Muxu potoloa. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ekhiñek bat, bi eta hiru! Otsailaren 8an 3 urte bete zituen. Ondo-ondopasa zenuelakoan. Muxuak etxeko-partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Jon Loiartek urteak beteko ditu otsailaren 14an. 1, 2, 3, 4 eta 5!!! Zorionak txipiron!!! Kamioika muxu zuretzat!

ANDOAIN

ZORIONAK



Eneko Idigora-sek otsailaren 19an 18 urte beteko ditu. Jator-jator segi. Muxuak aitona eta etxeko-partetik.

ANDOAIN


ZORIONAK



Nahia Idigora-sek 15 urte beteko ditu otsailaren 12an. Muxu handiak aitona eta etxeko guztien partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ane Etxezarretak 2 urte beteko ditu datorren otsailaren 16an. Muxu potoloa. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Unax Lopetegi Zatarainek 11 urte beteko ditu hilaren 15ean. Etxekoak, anaia Aner eta Oinatz lehengusua.

ANDOAIN / AIA

ZORIONAK



Olatz Ilarregik otsailaren 12an ospatuko du bere urtebetetzea. Muxu handi bat. Edorta, bere semeak eta etxekoak.

URNIETA



Oso erraza da diseinua@aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537

Euskararen erabilerari loturiko jarduera bikoitza

ESKULAN TAILERRA

BIDAIDE EGITASMOA

Artelanetarako duten trebezia erakustez gain, eskuekin lan politikak egiteko aukera izango dute guraso eta seme-alabek datorren otsailaren 17an, 17:00etatik aurrera, Karrikako Ludotekan. Izen-ematea: Ludotekan edo AEKn.

TOPIC MUSEORA IRTEERA

MINTZALAGUNAK

Datorren otsailaren 15ean Tolosako txotxongiloen museora bisita gidatua egingo dute, 18:00etan hasita. Mintzalagunak ez ezik, AEK-ko ikasleak ere gonbidatu dituzte irteerara. Izen-ematea: AEK. 943 591 704.

B E R P A
T S O L K
A G U T I
K Z I A K

**ANDONI EGAÑA
MAIALEN LUJANBIO
IKER ZUBELDIA
UNAI AGIRRE**

Gaijartzailea:
AITOR MENDILUZE

Otsailaren 17an,
19:00etan **Basque
Culinary Centeren**

**Ondoren
gutizia bereziz
osatutako
luntx-afaria**

20 €



23:30etan
autobusa **doan**
Hernanira
buelatzeko

SARRERAK SALGAI
HERNANI **Kronika** 943 33 08 99,
Kixkal, Aralar
ASTIGARRAGA **Ikatz**
EREÑOTZU **Irrintzi**
GOIZUETA **Amaia kafetegia**

ANTOLATZAILEA
Kronika

LAGUNTZAILEA
INSALUS